

IKASTURTE HASIERA-DATAK

Guraso agurgarriak:

Ohar honen bitartez 2020-2021 ikasturtearen hasiera-daten berri eman nahi dizuegu. Bizi dugun egoera berezia kontuan hartuta eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren aginduei jarraiki, ondorengo data eta orduak ezarri ditu Haztegi Ikastolak:

HH : Irailak 7an goizeko 10:00etatik aurrera (uztaileko oharrean adierazitako txandetan).

LH: Irailak 7an goizeko 10:00etan aurkezpena (gela bakoitza dagokion ordu eta lekuan).

LH1etik LH3ra bitarteko ikasleentzat oharra:

Lehenengo astean zehar, errutinak barneratzeko, tutore bakoitza krokisean zehaztutako eremuan kokatuko da gelako kartela eskuan duelarik.

LH4ko ikasleentzat oharra:

Lehenengo egunean, tutoreak krokisean zehaztutako eremuan kokatuko dira gelako kartela eskuan dutelarik.

LH5 eta 6koak dagokien orduan iritsi ahala, atzeko frontoitik sar daitezela.

Ate guztietan, eskuak garbitzeko gel gunea egongo da. Bertan, irakasle arduradun bat egongo da ikasle guztiek eskuak garbitzen dituztela ziurtatuz.

LH1: 10:00

LH2: 09:55

LH3: 10:00

LH4: 09:55

LH5: 09:50

LH6: 09:45

DBH 1 – 2 Irailak 7an goizeko 11:00etan aurkezpena.

DBH 3 – 4 Irailak 15ean goizeko 11:00etan aurkezpena.


BATXILERGOA 1 - 2 Irailak 15ean goizeko 11:00etan aurkezpena

.

Gogoan izan LHtik gora derrigorrezkoa dela maskara jantzita etortzea eta gel hidroalkoholikoa ekartzea. Gogoratu, bestalde, etxean temperatura hartu behar zaiela.

Aurkezpen egunean bertan jasoko dituzte ikasleek gainontzeko jarraibide eta oharrak.

SARRERA-IRTEERA PATIO ANTOLAKETA



LH 4B

LH4Bko ikasleek, atzeko frontoiko atetik sartu behar dutenez, bertan dagoen frontoiko arkupean aurkituko dute beren tutorea.